

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MOREDA ARABAKO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko 2025eko zerga kobratzea

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2025eko ordainagiriak kobratzeko aldia jakinarazten da.

ORDAINTZEKO EPEA.

A) Borondatezko epea: 2025eko irailaren 1etik urriaren 31ra.

B) Premiamendu aldia: 2025eko azaroaren 1etik aurrera, premiamenduko betearazte bide administratiboa hasiz eta dagokion errekaruarekin (Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikulua).

C) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez dutenek borondatezko al-dian egin ahal izango dute, Kutxabank banketxean eta banku transferentzia bidez. Horretarako, ordainagiria jaso beharko dute aldez aurretik udalean, 10:00etatik 14:00etara.

GOMENDIOAK.

Bankuko helbideratzean altarik edo aldaketarik egon bada, Moreda Arabako Udalari horren berri eman behar zaio; baita interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, hurrengo jakinarazpenak egin ahal izateko. Guztiek jakin dezaten argitaratzen da

Moreda Araba, 2025eko abuztuaren 20a

Alkatea

MARA GARCÍA DÍAZ DE CERIO